

## **2022KO UDAL-AURREKONTUEN PROPOSAMENARI BURUZ GASTEIZKO GIZARTE-KONTSEILUAK EGINDAKO ARAUZKO TXOSTENA**

### **SARRERA**

Gasteizko Udaleko Herritarren Parte-hartzearen indarreko Araudi Organikoak 78. artikuluan jasotzen duenez, besteak beste, honako hauek izango dira Udaleko Gizarte Kontseiluaren zereginak:

*“Urteko aurrekontu-proiektuari buruz arauzko txostena prestatzea”.*

Azaroaren 11n, Gobernu Taldeak 2022. urterako udal-aurrekontuen proiektua aurkeztu zuen Entzunaldi Publikoan.

Azaroaren 15etik 25era bitartean, hainbat eztabaida-bilera egin dira elkarguneetan, eta saio bateratu bat ere egin da auzogune guztien artean. Guztira, udal-teknikariak eta ordezkari politikoak kontuan hartu gabe, 54 erakundetako 113 pertsonak parte hartu dute (59 emakume eta 64 gizon), eta 6 pertsona bertaratu dira beren kasa.

Azpimarratu behar da hiriko neska-mutilei ere entzun zaiela prozesuan zehar, haurrek parte hartzeko Aktiba (TU) programaren bidez. Horrela, haurren iritziak txertatzearen aldeko apustu garbia egin da, haien iritziak ere funtsezkoak baitira guztiontzat nahi dugun hiria eraikitzeko.

Gizarte Kontseiluak, 2021eko azaroaren 29an egindako lan-saioan, ondorengo arauzko txostena prestatzea erabaki du aurreko eztabaida-saioetatik ateratako ondorioak eta proposamenak abiapuntutzat hartuta.

## 2022KO AURREKONTURAKO PROPOSAMENAK

### GARAPENERAKO LANKIDETZA

---

- Funtsezko proposamen gisa, garapenean laguntzeko politika publikoak sendotzea eta Garapenerako Laguntza Ofiziala areagotzea (% 1 inguru) planteatu da. % 0,7a finkatzea eta % 1era iristeko ibilbide-orri bat egitea, eta hura aurrekontuan islatzea. Gutxienez lankidetzarako aurrekontuaren iguera-ehunekoa mantentzea sarrera arruntei dagokienez.
- Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzan (GEH) lan egitea, lanerako ildo estrategiko gisa. Horretarako, GEHren deialdia indartu behar da, aurrekontu handiagoa bideratuz eta gizarte-ekonomia solidarioarekin lotutako ekintzak indartuz.
- Lankidetzako aurrekontua beste arlo batzuetara ez bideratzea. Horrela, partidaren bat gauzatzeko aukerarik ez badago, soberakinarekin arlo bereko beste aurrekontu-partida batzuk handitu beharko lirateke.
- Lankidetzan lan egiten duten pertsonen lan-eskubideak errespetatzen direla bermatzea. Eskubideak bermatzearekin lotuta, zeharkako kostuak areagotzea (gaur egungo % 7tik) eta GEHren deialdia indartzea eskatu da, elkarteek hirian egiten duten lankidetzaz-lana aitortzeko eta krisi hau sektorean eragiten ari den kalteak leheneratzeko.
- Behin eta berriz eskatu den moduan, Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa egokitzea eta hari beharrezkoak diren baliabideak bideratzea; izan ere, arazo asko sortzen ari dira Garapenerako Lankidetzako proiektuak aurkezteko edo justifikatzeko orduan.

### EUSKARA

---

- Udalak aurkeztu duen egoera ekonomiakoa kontuan izanik, Euskararen proiektuak 24.000 € berreskuratzea eskatu da.
- Aurreko urteetan bezala, informazio gehiago eskatu da (xehatuta) Euskararen Plan Nagusira bideratutako partidari dagokionez.

- Aurrekontu orokorrari dagokionez, hainbat arlotan igoera izan dela adierazi da (2 milioiko igoera hiriko ekimen handietarako, 3 milioiko igoera kirol-kontratueterako edo 3 milioiko igoera kulturen eta hezkuntzan). Horrenbestez, KPlaren igoera eskatu da euskara sustatzeko partidetarako.

## ADINEKOAK

---

- Adinekoentzako programa eta zerbitzuetara bideratutako aurrekontuak prestatzeko orduan, Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Estrategia 2021-2024 kontuan izatea eskatu da.
- Etxerako Laguntza Zerbitzua (ELZ)
  - ELZra bideratutako aurrekontua sendotzea eta guztiz udalarena izan dadila lortzea.
  - ELZren denborak bikoiztea eta zerbitzua areagotzea, bereziki zaurgarritasun-egoeretan.
  - Etxeko laguntza eta zainketa pertsonala bereiztea.
  - Beste zerbitzu batzuen erabilera sustatzea: Laguntza Pertsonaleko Prestazioa (LPPE) eta Zerbitzuarekin Loturiko Prestazioa (ZLPE).
  - ELZ zerbitzuak ematen duen arreta familia giroan zaintzeko prestazio ekonomikoarekin (FGZPE) osatzea, zenbatekoak murriztu gabe.
  - Familiako langileen jarraitutasuna bermatzea.
  - Eguneko zentroen kopurua handitzea, ELZrekin osatuz.
  - 24 orduko ELZ eta gaueko ELZ zerbitzuen bideragarritasun-azterketa.
  - ELZ zerbitzuari buruzko informazioa hobetzea, zerbitzua behar duten pertsona guztiengana irits dadin, eskubide subjektibo bat baita.
- Nahi gabeko bakardadea
  - Ahalegin gehiago bideratu beharra planteatu da, nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko eta gai honetan erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko.
- Hitzarmenak
  - Beste erakunde eta elkarte batzuekin ditugun hitzarmenetan partida ekonomikoak berrikustea eta handitzea.

## MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA INGURUMENA

---

- Apustu politiko argia eta ausarta behar da mugikortasun jasangarriaren ereduari aurrera egiteko. Neurri askok ez dute ia inbertsio ekonomikorik behar, hirian dauden 30eko guneak areagotzeko neurriak, adibidez. Aldaketa horrek arazo berriak sortuko dituela onartu da, aldaketa orok bezala, baita eztabaida bat egin beharko dela ere, eragindako ikuspuntuak irudikatuz (eragin motaren arabera): banatzaileak, taxi-gidariak, ibilgailua erabili behar duten pertsonak eta abar.
- Mugikortasun-modu guztiek bat egiteko lan egitea da plan honen helburuetako bat; horrela, bada, bizikletak eta patineteak espaloietatik ateratzea eta galtzada gainerako ibilgailuekin partekatzea da helburuetako bat. Horretarako, gehiago garatu beharko dira bidegorriak, eta oso garrantzitsua da lehendik daudenak elkarrekin lotzea.
- Bidegorriak areagotzeko partida bat dago, baina ez dago informaziorik ezarri diren urteko lehentasunei dagokienez.
- Landu beharreko beste helburuetako bat honako hau da: ibilgailu pribatuen zirkulazioa murriztea, garraio publikoa sustatuz, batez ere hiri-autobusa, BEI edo Tranbiaren gisako beste garraibide batzuen aurretik. Esperientzia ikusita, mugikortasun-plan horrek zehapen-neurriak behar ditu egin ohi diren arau-haustekak zigortzeko; hori ezin da utzi udaltzainen esku, erabaki politiko baten emaitza izan behar du.
- Tranbia-azpiegituraren gainkostuarekin amaitzea; nahikoa izango litzateke BEIaren aukera. Azpiegitura horien benetako kostuari buruzko informazio argia.
- BEIaren ibilbideko seinaleak hobetzea, interpretatzeko arazo asko sortzen baitituzte, batez ere udalerrikoak ez diren pertsonen artean.
- Ikastetxeetatik gertu igarotzen den BEIaren ibilbidean ahalik eta segurtasun-neurri gehien ezar ditzala eta neurri horiei lehentasuna eman diezaiela eskatu dio Kontseiluak Gasteizko Udalari.

- Hondakin-bilketari dagokionez, informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea eskatu da, eta zehatzago esanda, hondakin-bilketaren eredu berriari buruzko informazio-kanpaina bat.

## GAZTERIA-BERDINTASUNA-BIZIKIDETZA

---

- 2022rako udal-aurrekontuan aurrekontu-partida bat txertatzea Gasteizko etxeke garbitzaile eta zaintzaile emakumeek lokal bat martxan jar dezaten, beren premiei erantzuteko. Jarduera hori bat dator Berdintasun Zerbitzutik sustatzen ari diren lanarekin, hau da, Berdintasun Planaren 2. lerroarekin: Zaintzen Ekonomia Feminista.
- Gazteen osasun mentalari buruzko azterketa bat sustatzea, Aholkularitza horretan aurrekontu-igoera positiboki baloratuz.
- Elkarteei bideratutako partidak areagotzea. Asko dira kolektiboak eta gutxi baliabideak; horien artean sortzen den lehiak ez du ezertxo ere laguntzen.
- Dirulaguntza-deialdien planteamendu berri bat egitea, lege berriak zenbait urtetarako proiektuak aurkezteko aukera ematen baitu, gauzatze-epe luzeagoekin.
- Edizio honetan elkartu diren hiru elkarguneen artean sinergiak ahalbidetzea, hurrengo urtera begira, hiru planak elkarrekin lotuko dituen aurrekontu-proposamen bat aurkeztu ahal izateko: Gazteria, Bizikidetza eta Aniztasuna, eta Berdintasuna.
- Aurrekontu-partidek barne hartzen duten metodologia azaltzea eta/edo aldatzea. Gastua garapen jasangarrirako helburuen arabera sailkatuta, beste erakunde batzuek egin duten bezala.
- Hiriko inbertsio eta proiektu handiei gizarte-bizikidetzako ikuspegia ematea.

## OSASUNA – BIZIKIDETZA ETA ANIMALIEN BABESA

---

- Animaliekin eta, oro har, naturarekin batera bizitzeko kontzientziazio-kanpainak egiteko partida bat sortzea.
- Harrapatzeko eta hiltzeko partidak ezabatzea, eta animaliak "kontrolatzera" bideratuta daudenak mantendu eta partida horiek sentsibilizaziora bideratzea.
- Adoptatu daitezkeen animaliei buruzko informazioa zabaltzea, webgunean eta gizarte-etxeetako eta BIZANeko karteletan.
- Animaliak Babesteko Zentroa. Zentroaren izapideak arintzea: alde zuzeneko hitzordua, ordutegia, eskaera egin duen pertsonari egokitutako arreta.

## AUZOAK

---

- Modu positiboan baloratu da ikastetxeetako jolastokiak naturalizatzeko partida, baina ez da nahikoa.
- Inbertsio garrantzitsuak egin dira garraio publikoko azpiegituretan, gizarte-proiektuetarako zuzkidura hobearen kaltetan.
- Hainbat auzotan egin diren gizarte- eta hirigintza-arloko azterketen ondoren, faltan bota da emaitzak partida zehatzetan ez islatzea, atxikita dituzten eta Eusko Jaurlaritzak onartu dituen birgaitze-planerarako.
- Birgaitzeko udal-partidak ez dira nahikoak gaur egungo premiak kontuan hartuta.
- Gazteek arazo handiak dituzte alokairuko etxebizitzak aurkitu eta emantzipatu ahal izateko; horrenbestez, gazteentzako etxebizitzak alokatzeko politikak eskatu zaizkio Udalari.
- Era berean, gazteei aisialdirako baliabideak ematea, horiei udal-azpiegiturek eskainiz, bereziki gizarte-etxeak eta ekitaldi-aretoak, kontzertuak egin ahal izateko.
- Udalerriko auzoen egoeraren eta auzoek dituzten premia berezien diagnostikoa egitea, esku hartzeko lehentasunak ezarri ahal izateko. Une

honetan ez dago informazio garbirik auzoetako inbertsioak erabakitzeko orduan politikoki edo teknikoki erabiltzen diren irizpideen inguruan.

- Auzo-elkarteei bideratutako dirulaguntzen aurrekontua 220.000 €-ra igotzea eskatu da, partida horrek urte asko baitaramatza izoztuta.

## BESTE GAI BATZUK

---

- Etorkizunean egingo diren eztabaida eta bileren aurretik dokumentazioa bidaltzea.
- Udal-planei buruzko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak, herritarrek horien garapenean parte har dezaten.
- Azkena Rock jaialdira eta beste ekimen pribatu batzuetara bideratutako 380.000 €-ko aurrekontua desorekatutzat jotzen da, betiere Andre Maria Zuriaren jaietara bideratzen den 800.000 €-ko aurrekontuarekin eta beste kolektibo batzuek hainbat eremutan egiten dituzten izaera publikoko beste proiektu batzuetara bideratutako aurrekontuarekin alderatuta. Era berean, ez da oso ondo ulertzen zergatik egin behar den inbertsioa Frantziako Tourrean.
- Eskola-kirolean inbertitzeari eman beharko litzaioke lehentasuna, Mendizorrotza handitzearen gisako proiektuen kaltetan.
- Oso informazio gutxi dago Herrandarren kaleko proiektuari buruz. Herritarrek ez dakite dagoeneko itxita dagoen proiektua den edo herritarren iritzia kontuan izango den, bereziki inguruko bizilagunena.

Leku askotan, bide publikoa, galtzadak eta espaloiak kontserbazio-egoera txarrean daude. Horrenbestez, aurrekontu handiko inbertsio berri horiek beharrezkoak diren edo lehendik daudenak egoera onean mantentzen saiatu beharko genukeen hausnartu behar da.

Gizarte Kontseiluak Vitoria-Gasteiz Hobetuz programara bideratutako aurrekontua handitzea eskatu du, kontuan hartuta aurkeztutako proiektuetan eta bozketetan parte-hartzea nabarmen handitu dela. Programa hori herritarren parte-hartzea kontuan hartuta planteatu behar da, eta ez auzoen edo aurkeztutako proposamenen arteko lehia gisa.

Amaitzeko, Gobernu Taldeak eta gainerako udal-talde politikoek planteatu diren proposamenak baloratzea eta egokitzat jotzen dituztenak zuzenketa gisa helaraztea espero dugu. Era berean, eta aurrekoetan bezala, Gizarte Kontseiluaren txosten honi erantzun arrazoitua eman diezaiola eskatzen diogu Gobernu Taldeari.

Gizarte Kontseiluak eskerrak eman dizkie, beren balioespen eta proposamenen bidez, txosten hau egiten lagundu duten pertsoneri. Eta Gasteizko herritarrak animatu nahi ditugu gure udalerraren diru-sarrera eta aurrekontuen inguruan etorkizunean egingo diren eztabaidetan aktiboki parte hartzera, denon artean eraiki nahi dugun hiri-eredua definitzeko balio izango dutelakoan.

Txosten honekin batera, Aktibatu foroetan parte hartzen duten haurrek aurkeztutako proposamenak erantsi dira. Proposamen horiek HOBETUZ TXIKI programara bideratutako aurrekontuarekin egingo dira.

## **GIZARTE KONTSEILUA**

**Alberto Ruiz de Olano**  
**Gizarte Kontseiluko ordezkaria**

Gasteizen, 2021eko azaroaren 29an

## ANEXO 1

### PROPUESTAS AKTIBATU- ELKARGUNE INFANCIA Y ADOLESCENCIA



#### TALDE PROPOSATZAILEA ABENDAÑO 5<sup>a</sup>/ ABENDAÑO 6<sup>o</sup> A

Proposamenaren izenburua

Famatuekin topo, famatuekiko topaketak, famatuak ezagutu

#### ZERTAN datza zuen proposamena?

- Bullying-ari buruz hitz egiten duten pertsonak ekar litezke, nola gainditu duten partekatzeke, hainbat daudela.
- Youtubek dituen misterioak, gakoak, mundu honetan nola sartu ziren irakasteko.
- Harry Potter-en ingurukoak, magia ikasteko.
- Gainditze esperientziak gurekin partekatzeke, adibidez hater-en aurrean eta haiengan eraginik ez izateko.
- Ondo pasatu famatuekin. Galderak egin, haiek beren bibitza kontatu
- Bizitza modernoari buruz ikastea, gure idolo ezagutu.
- Bullying-ari buruz hitz egiten duten pertsonak ekar litezke, nola gainditu duten partekatzeke, hainbat daudela.
- Youtubek dituen misterioak, gakoak, mundu honetan nola sartu ziren irakasteko eta nola lortzen duten ikusgarritasuna.
- Gainditze esperientziak gurekin partekatzeke, adibidez hater-en aurrean eta haiengan eraginik ez izateko. Nola bizi "hate" eraginik izan gabe, babesten ikasi
- Cuanta más variedad, mejor. Aktoreak, musikariak, abeslariak...
- Que cuenten sus esfuerzos para conseguir los sueños.
- Ayudar a perseguir nuestros sueños.
- **Derechos: cultura, educación, participación...**
-

### **NOLA egin nahi duzue (bideak, baliabideak, metodologiak, etab.)?**

- Galderen bitartez gure pentsatzeko forma aldatu, beste perspektiba bat izatea, haien bizimodua ezagutu.
- Tailerrak egitea haiekin, argazkiak, abestu.
- Famatuei tour bat egin Gasteiztik.
- Topaketa haundi bat egitea, haiek hitzegin eta gero galderak egin.
- Abeslaria bada abestiren bat egin lehenengo.
- Gurekin “directos” egitea.

### **Zer EGOERA hobetu nahi duzue?**

- Animatzea, batez ere covid19 dela eta triste eta asperturik gaudelako, eta honezkero nota hobek aterata
- Famatuak zuzenean ikusi eta ez pantaila batean, horrela paintaila aurrean gutxiago egon.
- Gure eskubideak bultzatu: parte hartzea, dibertitzea... Guk ere gure aisialdia gustura asatzeko eskubidea dugu.
- Jende nagusiak baino hobeto gauzak egiteko kapaz gara.
- Lagunak egin
- Kultura eta teknologiari buruzko interesa piztea, pertsona famatuek Interneten dituzten esperientzien bidez.
- Zientzia, osasuna, bidaiak, historia eta abarri buruzko gaiak aukeratzea ezagutu eta ikertzeko grina motibatze eta pizteko, etorkizunean lanerako behar izango ditugulako.
- Autoestima, ánimo.
- Ni triste nagoenean, jende famatua eta influencer hauek alaitu egiten naute. Eta dibertsio, jostaketa, denbora-pasa ona ematen digute.
- Gainera, covid19 dela eta, aspergarratasun horretatik aterata behar dugu.
- Dibertitzeko eta ondo pasatezko eskubidea dugu.
- Es nuestro gusto y no hay gustos mejores que otros.
- Osasungarria buruarentzat eta aisialdi sanoa.
- Kultura, hezkuntza: ikasten da
- Partehartzea.
- Jende ospetsua ekartzeak eragina izango luke hirian, hedabideetan aterako litzateke, hiriari buruz hitzegino lukete, eta hori ona da turismoarentzat.

- Haiekin partekatu ahal ditugu guretzeko zailak diren hainbat egoera, adinaren arazoak etabar.
- Gure ametsak lortzeko laguntzen digu.

### **Zeintzuk jaso dezakete etekina zuen proposamenarekin?**

- Jende ospetsua ekartzeak eragina izango luke hirian, hedabideetan aterako litzateke, hiriari buruz hitzgingo lukete, eta hori ona da turismoarentzat.
- Haur eta nerabeengan batez ere.

### **TALDE PRPOSATZAILEA ABENDAÑO 5B / ABENDAÑO 6B**

#### **Proposamenaren izenburua**

Bideojokoen gela, bideojokoen elkargunea, digitalizazio eta elektronikoen gela, digitalizazio eta elektronika gela, bideojokoen estudioa, denbora-pasa gela, joku aretoa, bideojokoen aretoa, game on.

#### **ZERTAN datza zuen proposamena?**

- Denok jolasteko, ondo pasatzeko, jolasten ikasteko, lagunekin egoteko ARETO BAT.
- Erabilera aunitzekoa izan behar da.
- Asteburuetan irekitzen duena, lagunekin biltzeko.
- Ikastaroak izateko:
  - Robotika, arte digitala, informatika, kirol birtuala, eskulanak, bideojokuak sortzeko, marrazki digitala, nola erabili teknologia, interneteko arriskuak azaldu, 3D inprimagailua.
- Bideojokuen lehiaketak ere egiteko.
- Areto koloretsua eta teknologiari buruzko guk egindako materialarekin dekoratuta.
  - Non gazteak elkartu ahal diren.
  - Gune bat teknologi desberdinekin, lagunekin egoteko, manahi-jokoak eta futbola, jendea ezagutzeko, aisialdi lekua
  - Liburuak izan eta irakurri ere

- Ikastaroekin: arte digitala, Robotika, informatika, marrazki digitala, nola erabili teknologia...
- Aisialdia bultzatzeko gela

### **NOLA egin nahi duzue (bideak, baliabideak, metodologiak, etab.)?**

- WIFI arekin eta mobilak kargatzeko guneak.
- Ordenagailuak, kontsolak eta mahai jokoak. Joku oso famatuak erakargarriak
- Pantaila haundiak
- Dohainik edo dirurik ez dutenak kontuan hartzen.
- Zita hartuz, txandakatzeko.
- Gurasoak onartzen dira.
- Adinak antolatu (6-8, 8-12 adibidez)
- Ume txikiak bideojokoetan ez jolastu; mahai-jokoak, lego...eta horietan bai.
- 6-8 urtetik gora, 4-8 urte beste jokoak
- Gafas de realidad virtual.
- 3D inprimagailuak.
  - Futbolina, tailerrak, ordenagailuak, tabletak, konsolaren bat, hockey de mesa, esertzeko tokiak edo koltxonetak.
  - Irteerak (txangoak) teknologiarekin zerikusia dutenak (Iparorratza, google maps,...)

### **NON egin nahi duzue?**

Gizarte etxeetan

Alde Zaharrea, erdialdean

Zabalganan

### **Zer EGOERA hobetu nahi duzue?**

- Jolasten irakatsi
- Lagunak egin eta haiekin egon.
- Gaur egungo gauzak ikasi, teknologiaren inguruan, gure etorkizunean erabiliko ditugulako. Hezkuntza
- Berrikuntzei buruzko informazioa lortzen da.
- Parte hartzeko eskubidea: udaletxeari esan zer nahi dugun eta zer da gustatzen zaiguna.

- Aisialdi osasungarria
- Sormena lantzen da.
- Burmuina eta koordinazioarako ona da
- Gu egoteko lekua, hirian ez dugulako eta bertan kultura ere izan: musika, kale kultura, zientzia...
- Aisialdi osasungarria: burmuina eta koordinazioa hobetzeko, sormena lanteko
- Aukerak berdinak izateko eskubidea.
- Umean etxean daude sartuta eta horrela ateratzen dira eta sozializatu.
- Jolasten irakatsi
- Gaur egungo gauzak ikasi, teknologiaren inguruan, gure etorkizunean erabiliko ditugulako. Hezkuntza
- Berrikuntzei buruzko informazioa lortzen da.
- Parte hartzeko eskubidea: udaletxeari esan zer nahi dugun eta zer da gustatzen zaiguna.
- Aisialdi osasungarria
- Sormena lantzen da.
- Burmuina eta koordinazioarako ona da
- Gu egoteko lekua, hirian ez dugulako eta bertan kultura ere izan: musika, kale kultura, zientzia...

## **TALDE PROPOSATZAILEA ABENDAÑO 5D (Proposamenaren izenburua)**

Maskotaren eguna

### **ZERTAN datza zuen proposamena?**

Maskota guztien jaia sortu, animaliak eta familiak dibertitzeko tailerrak egin, ekintzak, jolasak

Maskoten festa ospatu, maskotak eta familiak batera dibertitzeko

### **NOLA egin nahi duzue (bideak, baliabideak, metodologiak, etab.)?**

- Auzo elkarteekin laguntzarekin zabaldu, telebistan, irrati saioetan,...
- Lasterketak, pasarela de animales...
- Maskotak ondo irakasteko tailerrak
- Mercadillo bat egin eta lortutako dirua txakurtegiarentzat
- Familientzako jolasak: gymkana, "Izkutuan" maskotarekin, merendola...
- Antzerkiak, Puzgarriak, Kaleko zinema... animaliei buruz

- Txakurrekin erakustaldiak (jakintsuekin)
- Ondo pasatu, jolastu
- **Maskotak ez direla abandonatzen.**
- **Txakurrentzako leku gehiago.**

### **NON egin nahi duzue?**

- Buesa Arena, Iradier Arena, Virgen Blanca, Mendizorrotzan kanpoan,...

IRAILEAN, dagoeneko egiten denarekin batera.

### **Zer EGOERA hobetu nahi duzue?**

- Hobeto pasatzeko, animaliekin konektzaeko, hauek ateratzeko, animaliak beste animaliekin egoteko.
- Animaliak gertu izan eta lagunak gisa ikusi.
- Jendea kontzientziatzea maskotak adoptatzeko eta ez erosteko.
- Maskota bat izateko erantzukizuna ikasi.
- Maskotak ez direla abandonatu behar ikasi.
- **Txakurtegian dauden vatu edo txakurren egoera hobetu.**
- **Animaliak adoptatu eta ez erosi.**
- **Maskotak nahi duten jendeak erantzukizuna eduki behar du.**

**TALDE PROPOSATZAILEA ABENDAÑO 6D (Sexuaren, adinaren eta abarren arabera bereizita)**

**NESKA: 9 MUTIL: 13 (11 - 12 URTE)**

### **Proposamenaren izenburua**

#### **ZERTAN datza zuen proposamena?**

Hiriko bidegorrien sarea hobetzea eta hirian bizikletaren erabilera modu seguruan sustatzea. Gainera, bizikleta hirian ibiltzeko modu osasungarri eta seguru gisa erabiltzea garrantzitsua da.

Azkenean, mugikortasun seguruagoa lortu nahi dugu, oinezkoentzat eta bizikletentzat leku gehiago, ke gutxiago eta zarata gutxiago hirian.

### **NOLA egin nahi duzue (bideak, baliabideak, metodologiak, etab.)?**

- Hiri osoko bidegorrien sarea hobetzea, konektatuta egon daitezen.
- kontzientziazio-kanpainak bizikleta- eta auto-gidariantzat.
- Inkesta bat egin jendeak bozkatzeko bidegorriak non egin.
- Ikastetxeen inguruan dauden arazoak eta beharrak begiratzea.

### **NON egin nahi duzue?**

- Hiri osoan. Batez ere, hiriko gune beltzak hobetzea eta ezabatzea.

### **Zer EGOERA hobetu nahi duzue?**

- Bidegorri zabalagoak kale batzuetan eta seinaleak hobetzea.
- Bidegorriak hiri osotik jarri behar dira. Lege bat dago 16 urte edo gehiago badituzu, ezin duzula espaloitik joan, eta orduan errepidetik eta bidegorrietatik joan behar zara. Bidegorri gutxi daude, eta errepidea arriskutsua da.
- Bizikletak aparkatzeko leku gehiago kalean eta seguruagoak.
- Patineteak alokatzeko zerbitzua.
- Patinetarako aparkalekuak.
- Bizikleta hobeto erabiltzeko umeentzako tailerrak.
- Semaforoak eta bizikleten abiadura sinkronizatzea.
- Autoen abiadura hiri osoan mugatzea.
- Bizikleta-eremu gehiago, BMX zirkuitua... leku hutsetan.
- Autoen aparkalekuen ordez lorategiak jartzea.
- Elurra dagoenean, bidegorrietan pilatzen da.

### **PUNTU ZEHATZAK**

- Abendaño Ikastolan bizikletak aparkatzeko tokiak aske daude.
- Ikastola aurrean dagoen semaforoa ikertu, batez ere ikastolaren sarrera eta irteerako orduetan.
- Abendaño ikastolaren inguruko bidegorriari begirada bat bota, buelta haundia ez emateko.
- Aparkaleku gehiago jarri Avda. San Martingo Alcampon.
- Helikopteroaren gunean ere lekua falta da.
- San Viator eta Europa tarteko espaloia oso estua da.

- Eskola orduetan obrarik ez egin: zarata eta hautsa sortzen dute.
- Betoño-Gamarra aldean bidegorriak falta dira.

### **Zeintzuk jaso dezakete etekina zuen proposamenarekin?**

- Hiriko pertsona guztiak. Batez ere, hiriko patinete eta bizikleten erabiltzaileak.

**PROPONENTE GRUPO O COLECTIVO PAULA MONTAL (Desagregados por sexo, edad...)**

**CHICAS: 14 CHICOS: 10 (13-16 URTE)**

### **Título de la propuesta**

Empoderamiento femenino

Promover la igualdad de género con actividades originales: deportes, juegos y actividades de defensa personal.

La vida desde otra perspectiva

### **¿En QUÉ CONSISTE vuestra propuesta?**

Taller contra el machismo, racismo, acoso y violaciones para promover la igualdad entre mujeres y hombres. Trabajamos para promover diferentes actividades las cuales puedan cambiar el pensamiento y actos machistas. En definitiva, promover la igualdad y que no se les infravalore a las mujeres.

Visualizar el abuso y la violencia contra las mujeres, y ayudar a todos los géneros promoviendo el feminismo

### **¿CÓMO queréis que se haga (medios, recursos, metodologías, etc)?**

Queremos hacer charlas desde experiencias personales de mujeres y con medios audiovisuales.

Talleres y cursos de autodefensa y hacer logotipos en la ropa y mascarillas,... charlas sobre experiencias machista vividas en el pasado. En estas actividades podrían participar cualquier persona y no tendría ningún coste.

Difundir por redes sociales mensajes sobre la igualdad.

Hacer actividades como decorar la ciudad con cosas que promuevan el feminismo.

Podríamos hacer una gynkana con pruebas diferentes: un tiktok con canciones contra el machismo, algo de cocinar...el tema del feminismo se difunde en las preguntas y pruebas.

### **¿DÓNDE queréis que se haga?**

En institutos, centros cívicos, locales, lugares donde se hagan extraescolares,...

Colocación de logotipos en los comercios de la ciudad, en colegios, en paradas de autobuses,...

Anuncios en el cine.

### **¿Qué SITUACIÓN queréis mejorar?**

Queremos mejorar el tema de la igualdad.

Eliminar el machismo. Más respeto hacia la mujer y eliminar la discriminación de género.

La gente de nuestra edad también sufre de este tema, tanto en redes como en la calle, la calle ha de ser más segura. También nos influye en la forma de ser, nuestros gustos.

### **¿Qué personas se pueden beneficiar con vuestra propuesta?**

Tanto hombres como mujeres de la ciudad. Principalmente las mujeres ya que son las que más sufren esta situación.

### **¿Consideráis que vuestra propuesta promueve....? Explicación de por qué.**

- **Igualdad de género.**

- Sí, porque se defienden los derechos de todas las mujeres. Es importante para ayudar a la gente a defenderse del machismo, maltratos, abusos,...y también iría dirigido a la gente de nuestra edad porque también sufre de esto.
- **Convivencia, diversidad y accesibilidad.**  
Sí, porque el objetivo es una sociedad donde todos convivamos y podamos obtener las mismas oportunidades.

### **PROPONENTE GRUPO O COLECTIVO SANTA MARÍA (Desagregados por sexo, edad...)**

**CHICA: 12 CHICO: 13 (11-12 URTE)**

#### **Títulos de la propuesta**

Campaña de sensibilización contra el racismo

Día contra el racismo.

Stand "Conociendo culturas".

#### **¿En QUÉ CONSISTE vuestra propuesta?**

Nuestra propuesta consiste que haya respeto entre varias nacionalidades. Para ello, se propone crear iniciativas en contra del racismo.

Manifestación en la plaza Nueva con un cartel: Dí no al racismo, hacer una canción contra el racismo,... Hacer una canción nosotros mismos, la letra, la edición, el vestuario y cantar.

Esta propuesta tiene como objetivo evitar discriminar a la gente por su color de piel. Y por tanto, conseguir la igualdad en el mundo. Las personas deben respetar a las personas de otras culturas.

Hablar sobre el racismo con vídeos, juegos... Investigar si hay videojuegos contra el racismo.

#### **¿CÓMO queréis que se haga (medios, recursos, metodologías, etc)?**

Concurso de videos con el móvil, con el tema relacionado contra el racismo.

Premios: firma de un jugador de futbol, dinero, entradas, de futbol, cine, teatro,...

Talleres en los colegios de la ciudad para trabajar con los niños y niñas el tema de los estereotipos relacionados con el racismo.

Realizar un anuncio, cartel y/o vídeo. En cartel podría poner: ¿A ti te gustaría que te hicieran lo mismo?

En la Plaza de la Virgen Blanca poner un stand con mesas para que las personas se sienten a hablar con personas de otros países para conocer sus costumbres. Se podría completar con gastronomía de diferentes países, música, juegos, fiestas,... con la idea de mejorar la relación entre personas de otros países.

También se podrían hacer chapas, camisetas,...

### **¿DÓNDE queréis que se haga?**

Los carteles se podrían difundir en los autobuses y tranvías de la ciudad, así como por otros soportes y lugares de la ciudad como colegios, Boulevard y Plaza Nueva, entre otros.

Y las mesas para conocer costumbres sería en la Virgen Blanca.

### **¿Qué SITUACIÓN queréis mejorar?**

Conseguir mayor respeto entre nosotros y se beneficiaría mucha gente de ello.

Queremos conseguir que la gente sea menos racista.

### **¿Qué personas se pueden beneficiar con vuestra propuesta?**

Está dirigida a toda la ciudad. Que los adultos enseñen a los hijos que sean menos racistas.

- **Convivencia, diversidad y accesibilidad.**

Mayor respeto entre las personas y luchar contra la discriminación racial.  
Concienciar sobre la importancia de tratar a todas las personas por igual  
independientemente de su color de piel.  
Promover lugares en la ciudad de tolerancia, inclusión y convivencia intercultural.

**Convivencia intergeneracional.**

Sí porque es como una red de ciudadanos que ya saben cómo somos y ellos  
también lo cuentan.

- **Inclusión social de colectivos desfavorecidos.**

Sí porque se lucha contra los prejuicios y estereotipos sobre las personas  
extranjeras y contra la discriminación.